



Dabid Anaut

ITZULTZAILEA ♦

# Azentu bitxiak eta sinesteko gogoia

DUELA GUTXI irakurri dut Espainiako hedabide batean nazioarteko agentzia batetik jasotako berria: Australiako emakume bat, auto istripu bat izan ondoren, azentu frantsesarekin hitz egiten hasi omen zen, eta hala ari omen da geroztik. Atsekabe handia eragin omen dio horrek, sufrikarioa. Atzerriko azentuaren sindromea omen da eta, nonbait, azkeneko 70 urteotan 62 kasu besterik ez da ezagutu.

Hedabideetan berria nola jaso duten? Jakina, inpaktua sortuko duen bidetik: "Istripu baten ondoren, emakume australiar bat frantses azentuaz hitz egiten hasi da". Batzuek, ez daukat zalantzarik, hitzez hitz eta %100ean sinetsiko zuten albistea, gure emakumeak ingeles Pariseko azentu perfektuarekin egingen zuelakoan.

Noski, txisterako bidea ere aukerakoa zen: batek kontatu du, konparaziora, behin buruan kolpe handi bat hartu eta txineraz egiten hasi zela; beste batek proposamen zehatza egin du: autoarekin beste kolpe bat har dezala emakumeak, eta ea Australiako azentua itzultzen zaion, "shock-terapia" alegia; kasu arraroa dela ukatu duenik ere bada, izan ere –argudiatzen du horrek– Frantzia auto istripu ugari egoten da, eta denak azentu horrekin ateratzen dira autotik! Aznarrena ere aipatu da, Bushekin egon ondoren gelditu zitzaion

azentu xeblebre hura gogoan; eta gertatuak galdera berriak eragin ditu: emakumea orain frantsesez ikasten hasten bada, Australiako azentua geldituko zaio?

Jakina, emakume horrena ez da azentu frantsesa, horren nolabaiteko tankera izan lezakeen ezohiko ahoskatzea baizik. Gainerakoa, gure irudimenak eta gauzak sinesteko gogoak jartzen du, eta berri deigarrien beharra eta zorroztasun eskasak duten hedabideek.

Edozein albiste sinesteko prest gaudela ematen du batzuetan. Gogoia besterik ez da behar, sarritan, zuhurtasuna alde batera utzi eta sinetsi nahiko genukeen hura ontzat emateko, baita hizkuntzen alorrean ere: hizkuntzaren genea aurkitu dutela, azkenean euskararen ahaide bat agertu dela, edo kolpe txar batek berehala lortzen duela akademiarik onenak urteetan nekez lortzen duena. Berriekiko jarrera axolagabe horrek ez du, nahitaez, txarra izan behar. Jolasgarri izan liteke zenbaite-

*Edozein albiste sinesteko prest gaudela ematen du batzuetan. Gogoia besterik ez da behar, sarritan, zuhurtasuna alde batera utzi eta sinetsi nahiko genukeen hura ontzat emateko*

tan. Baina jokoan denborapasa edo entretenimendu hutsa baino gehiago dagoenean –euskararen inguruko diskurtsoak eraikitzean, adibidez–, zorrotzagoak izan beharko genukeela iruditzen zait, besterik ez bada, gure zain beti aizkorarekin dabiltzan horiei aukera gutxiago emateko. ■



DANI BLANCO



Edu Zelaieta



IDAZLEA

## Denboraz

ONDARE ez-materialen artean, segur aski denbora izanen da altxor preziatuena gutako askorentzat: guztiok nahi dugu ez omen dugun denbora gauza gehiago egiteko. Alde horretatik, ekintza erradikala bihurtzen ari da egunerokoak –sistemak– ematen ez duen denbora hartzea: nor bere inguruari begiratzeko denbora; nor bere gorputza haztatze-koa; nor bere harremanak zaintzekoa.

Ez da kasualitatea, beraz, sistema –egunerokoa– astindu gogo dutenek denboraren kudeaketan enfasia jartzea, indibidualki nola kolektiboki. Beste mundu bat aldarrikatzen duten lagunak beste erritmo bat ere eskatzen

ari dira, mendebalean bereziki. Gure biziak zeharkatzen dituzten Abiadura Handiko Trenak bat baino gehiago dira, haien burdinbiderik ikusten ez badugu ere.

Egunotan bizi gaituen pragmatismo zitalak bere erroak nonahi ezarriak ditu, hausnartzeko beharrezkoa den denbora irentsiz. Zientziaz eta ezagutzaz arduratzen den unibertsitatean, esaterako, inoiz baino ikerlan gehiago argitaratzen ari dira. Produktzioak gora egin du; ezagutzak, ordea, ez dakit. Zinezko ezagutzak denbora eskatzen baitu beti. ■

